

ERAGILE GARRANTZITSUEN MAPAKETA

SARRERA

Eragileen mapaketaren helburua da Getxon kirolaren eta ongizatearen inguruan, eta Getxo Kirolaketa eta Fadurako kiroldegiaren inguruan bereziki, erkidegoa osatzen duten pertsonak eta erakundeak identifikatzea.

Kontaktuen sarea muga zehaztugabeak dituen eta etengabe bilakatzen ari den datu-base bat da. Ez da itxiztat hartuko proiektua amaitu arte,

beraz, hemen aurkezten dena ez da lan sakona, ezta osoa ere.

Hasierako mapaketa honen bidez, sarearen hedadura eta zer hutsune dauden jakin daiteke, eta horiek ordezkatzeko has daiteke. Horrez gain, interesik handiena sortzen duten proiektuaren gaiak edo alderdiak identifikatzeko eta eragileek hurrengo fasean parte hartzeko prest agertzen diren ala ez jakiteko aukera ematen du.

MAPAKETAREN METODOLOGIA

Mapaketa garatzen genuen bitartean zenbait dinamika konbinatu genituen. Jarduera konbinatu horien helburua sarea hasieran ezagututako eragileen bidez ezagutzea eta geroago hedatzea zen, gizarteko sektore zabalago eta desberdina- go bat barne hartu arte.

Dauden kontaktuak

Lehen lana Getxo Kirolaketik ezagutzen zen jendea, eta beraz, erakundetik hurbilen zeudenak, identifikatzea eta sartzeta izan zen. Hori- tako batzuek zalantzak agertu zituzten, beste batzuek gaien ibiliak ziren.

Elkarrizketak

Lehen kontaktu horiekin elkarrizketa erdiegitu- ratuak egin ziren, helburu hauetarako:

- Erkidegoko eragileen zuzeneko elkarrizke- ta bat egitea.
- Proiektuaren aurrean zuten jarrera, sen- tsazioak eta parte hartzeko prest agertzen ziren ala ez jakitea.
- Eragileak eta beraien arteko harremanak ezagutzea eta datu-basean sartzeta.
- Prozesuan egon litezkeen mehatxuak eta aukerak identifikatzea.
- Faduraren inguruko gai garrantzitsuak identifikatzea.

Elkarrizketetan zehar galdera hauek egin ziren:

- Zer erakundetako zara?
- Zer eginkizun duzu horretan, edo zer egi- ten duzu normalean?
- Zer harreman daukazu Fadurarekin, bere- ziki, edo bertako kirolaren kudeaketarekin, oro har?
- Zer pertsonaiekin edo sailekin uste duzu harremanetan jarri beharko ginatekeela?
- Zure ikuspegitik zein dira partaidetza- -prozesuan zehar landu edo kontuan hartu beharko liratekeen gairik garrantzitsuenak?
- Zer alderdi hartu beharko genituzkeen kon- tuan zuzentzat edo zure erakundearentzat prozesu honetan parte hartzea interesga- rria izateko?

Elkarrizketak audioan grabatu ziren eta argaz- kiak egin ziren.

15 elkarrizketa edo taldeko bilera egin ziren, eta banakako 12.

Elkarrizketa kolektiboak

Elkarrizketetako batzuk taldeka egin ziren, sail- ka edo antzeko gaien arabera. Horrela, mapake- ta egiteko beharrezkoak ziren bilera edo deialdi kopurua hobeto ezarri zen.

Banakako erantzunak bermatzeko, galdera garrantzitsuenak fitxa batean idazten ziren eta bertaratutako bakoitzak bete behar zuen, bere harremanetarako datuez gain. Fitxa horiek berak datu pertsonalak lagatzeko baimen gisa erabiltzen ziren.

Behin fitxak beteta, bertaratutako bakoitzak irakurri eta edukia gainerakoei azaltzen zien, guztien arbel batean gaiak eta eragile nagusiak idazten joaten ziren bitartean.

Banakako elkarrizketak

Banakako elkarrizketen kasuan, arinagoak eta naturalagoak egiteko, fitxa bera erabil zen eredu gisa, baina elkarrizketatzaileak berak betetzen zuen, edo oharrak hartzen ziren, puntu guztiak betetzen zirela bermatuz.

On line bilaketa

Getxo Kirolakek emandako kontaktuez edo elkarrizketetan identifikatutakoez gain, datu-baseen eta web-orrien arabera egin zen bilaketa bat, horien bidez beste 100 erakunde gehiago identifikatuz.



KUDEAKETA ETA AZTERKETA

Oharrak

Elkarrizketa eta bilera guztien oharrak testua eskematizatzeko tresna batera transferitu ziren, hitz garrantzitsuen arabera iragazteko gaitasuna zuena, horrela, erraz berrikusi, ordenatu eta kontsultatu ahal izateko.

Datu-basea

Harremanetarako datuak etengabe sartu ziren datu-base bakar batera (kalkulu-orria). Hor, orain deskribatuko ditugun zenbait eremu barne hartu ziren.

Identifikatzekoak: Identifikazio-zenbakia, sarre-ra-data, harremanetan jartzeko pertsonaren edo ordezkariaren izena, sexua, adina, Getxon jaioa edo ez, jatorriko herrialdea, auzokoa (Faduratik hurbil), talde mota, taldearen izena, pertsonak taldean duen eginkizuna, Getxo Kirolakeko abonatu edo ez.

Harremanetan jartzekoa: Helbide elektronikoa, telefonoa, Twitter eta abar.

Jarraipena egitekoak: Parte-hartzea proiektuan, Fadurako eremuarekiko harremana, teknikari taldearen eta pertsona horren arteko harremana, eta teknikari taldeak hartu beharreko georogoko ekintzak. Horrez gain, jarduera nagusi bakoitzarekin zutabe bat sortu zen, joaten zen ala ez adieraziz.

Mapaketari buruzkoak: Kontaktua ematen duen pertsona, pertsona horrekin duen harremana, aritzen den gaiak.

Azterketa eta bistaratzea

Sortu ziren datuak kalkulu-orrian bertan eta sareak aztertzeko eta bistaratze interaktiboak sortzeko aukera ematen duten aplikazioen bidez aztertu ziren.

Talde batek Udaleko ekonomia sustapenerako sailarekin izandako elkarrizketa baten argazkia.

SAREAREN AZTERKETA OROKORRA

Datu-basean jasotzen den eragile kopurua etengabe eguneratzen da. 2017ko ekainaren amaierarako 600 baino gehiago ziren. Horietatik, 150, teknikari-taldearekin norabide bitan egon ziren harremanetan, gehienbat bileren bidez (70) edo garagardotegiko tailerretan (43). Gainerakoak posta elektronikoz, telefonoz eta biak konbinatuz izan ziren.

Eskuineko grafikoan sarea ikusten da. Hor, nodo bakoitzak eragile bat adierazten du, eta nodoen arteko ertz edo lotura bakoitzak, norabide bateko harremana adierazten du, modu honetara: lotura ateratzen den eragileak lotura jasotzen duen eragilea aipatu edo berari buruz hitz egin zuen.

Horrela, elkarrizketetan zehar sarea nola garatu zen ikusten da, eta argi erakusten dira eragile “konektoreak”, horietatik beste batzueganako erreferentzia asko abiatzen direlako. Eragile bakoitzak antzemandako garrantziaren ideia bat ere ematen da, jasotzen duen lotura kopururengatik (grafikoan tamaina handiagoa duten nodoak).

Erreferentziak edo loturak bakarrik jasotzen dituzten nodoak daude elkarrizketatu ez ziren eragileak direlako, hau da, ez dute erreferentziarik edo loturarik. Eragile horiei bigarren elkarrizketa bat egingo balitzaie, lotura berriak sortuko ziren, sarea partzialki handituko zen eta batez ere, dauden eragileek lotura gehiago izango lituzkete, elkarrizketa-txanda bakoitzean ezagunak ez diren oso eragile gutxi izatera heldu arte.

Eragileen lotura-maila ere ikusten da. Esaterako, udaleko sailen eta horien artean ezarritako lotura asko ikusten dira. Horrek adierazten du sail bakoitzean ezagutzen diren eragile kopuru handia, eta proiektuaren zeharkakotasunaren berri ematen du, sailek garrantzitsutzat hartzen dutelako elkar.

Loturarik jasotzen ez duten eragileak taldeak zuzenean identifikatu zituen, lineako zenbait iturriren eta zeuden datu-baseen bitartez, edo aurrez aurre.

Eragileen erdia gutxi gorabehera teknikari-taldeari lehen kontaktuak eman zizkioten Getxo Kirolakeko langileekin zuzenean lotuta daude, eta gainerakoak mapaketa-dinamiken bidez lortu dira. Sarea hedatu egin da, bi edo hiru banaketa-maila (loturei dagokienez) izan arte Getxo Kirolakeko langileei dagokienez.

Bestalde, Getxo Kirolak bakarrik eman zituen 170 kontaktu inguru daude, kirol-klubetakoak nagusiki. Beste eragile batzuek askotan aipatu zituzten, baina generikoki, beraz, ez dira adierazi.

Sarearen hedadura eta etorkizuneko partaidetza-proiektuaren inguruan duten harremana baloratzeko, hurrengo orrietan Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Behatokiaren “Partaidetza-prozesuen ebaluaziorako gida praktikoak” proposatutako batzuetan oinarritutako zenbait alderditatik aztertzen da, aurretiko ebaluazio bat egiteko esparru orokor egokia ematen duena.

Oro har, lortutako sarea abiapuntu ontzat har daiteke parte-hartzaileen hautaketa zabal eta inklusibo bat lortzeko. Hurrengo faserako geratuko da antolatu gabeko gizartearengana, eta bereziki Fadurako auzokoengana hurbiltzea.


←
Eragile nagusien sarea,
erakunde motaren
arabera bereizita

- Udal sailak
- Alderdi politikoak
- Beste erakunde batzuk

- Kirol klubak
- Elkarateak
- GKEak, fundazioak...

- Hezkuntza-erakundeak
- Guraso-elkarateak

- Pertsonak



1. Inork ez aipatu gabeko kontaktuak: berezkoak edo teknikari-taldeak adierazitakoak.

2. Bilerak egin ziren alderdi politikoak.

3. Getxo Kirolakeko langileak, zenbait pertsonak garrantzitsutzat hartu dutena.

4. Zenbait profil dituzten ekintzaileak, Getxo Kirolakek eta Ekonomia Sustatzeko sailak aipatutakoak.

5. Oso lotuta dauden udal sailak, Ingurumena, Hirigintza eta Gazteria nabarmenduz.

6. Hezkuntza-erakundeak eta guraso-elkarateak, sareko zentroan partaidetza handia dutenak.

7. Kirol-klubak; Getxo Kirolakeko pertsona batek bakarrik eman zituen kontaktuak.

8. Federazio baten eta Gizarte Zerbitzuen arloaren inguruan taldekatutako elkarateak.

ERAGILEAK ERAKUNDEAREN ARABERA

Datu-basean 81 pertsona independente identifikatu ziren, eta 526, erakunde baten kide edo ordezkari gisa.


Oso bestelako erakunde edo taldeak dira. Banakako pertsonak (kirolari independenteak, adituak, Getxo Kirolakeko langileak, udaleko langileak), guraso-elkarteak, udal sailak, elkarteak, kirol klubak, enpresak, federazioak, hezkuntza-erakundeak, alderdi politikoak, erlijio-erakundeak, fundazioak, egoitzak eta beste erakunde eta proiektu batzuk.

Fase honen mugak direla eta ez zen deialdi-kanpaina zabalik egin antolatu gabeko herritarrentzat, beraz, prozesuaren hurrengo fasearen hasieran egitea proposatzen da, jarduerak prestatzen diren bitartean.

ERAGILEAK DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN ARABERA

Dibertsitate funtzionalarekin edo irisgarritasunarekin zuzenean lotutako 31 kontaktu identifikatu ziren: 12 elkarte, 5 federazio, 2 fundazio, 1 hezkuntza-erakunde bateko departamentu, 1 GKE, 2 udal sail (Hirigintza eta Azpiegiturak eta Gazteria Saileko Inklusio Zerbitzua) eta kirola egiten duten eta dibertsitate funtzionala duten pertsona batzuk, zenbaitek maila profesionallean.

Elkarteek Faduraekin duten harremana mugatua da edo ez dute harremanik, baina haiekin harremanetan jarri ginenean oso prest agertu ziren proiektuan parte hartzeko. Horri esker, dagoeneko ditugun banakako kontaktuak osatuko lirateke eta dibertsitate funtzionala duten eta ez duten pertsonak barne hartzen dituzten jarduerak batera diseinatzeko, irisgarritasunari buruzkoak edo beste gai bati buruzkoak.




ERAGILEAK GAIAREN ARABERA

Datu-baseen interpretazioa errazteko eta partaidetza-prozesuari begira interes-taldeak identifikatu ahal izateko, lan egiten duten interes edo gaiekin lotutako gako hitzekin eragileak etiketatuz joan ziren.

Gai nagusiak hauek dira: kirola, ekonomia (enpresak, ekintzailtza eta abar), hezkuntza, kultura eta gazteria. Horietatik urrun daude ingurumena, aisialdia, irisgarritasuna eta kultura artekotasuna. Emaitza hauek gutxi gorabehera-

koak dira, gai bat agertzen den aldi kopurua ez dagoelako zuzenean lotuta sareak gai honetan duen benetako hedadurarekin.

Etiketa horiek, proiektuaren gai nagusien inguruko berariazko jardueren xede-publikoa errazago iragazteko aukera emango lukete, hainbat konbinazio sor ditzakeen gida malgu gisa kontuan hartuz. Esaterako, ingurumeneko jarduerak ikastetxeetako umeekin, “ingurumena” eta “hezkuntza” gurutzatuz.



ERAGILEAK JATORRIAREN ARABERA

Eragile nagusien sareak jatorri atzerritarreko pertsonen ordezkariak ditu: migrazioarekin eta kultura artekotasunarekin lotutako 34 eragile; irabazi-asmorik gabeko 19 elkarte edo bestelako erakundeak (Getxoko Etorकिन Federazio Plataforma esaterako), 4 aditu edo ikertzaile eta zenbait erakunde, proiektu eta pertsona gehiago.

Horrek, datu-basean identifikatutako eragileen % 3a bakarrik ekartzen badu ere, Getxon gaiarekin lotutako ia erakunde guztiak barne hartzen ditu. Horiek, gehienbat, hedadura askoz ere handiagoa duten taldeen ordezkariak dira, beraz, haien bidez, proiektuan egokia den ordezkari bat berma daiteke.

Elkarrizketetan zehar haiekin komunikatzeko modurik onena identifikatu zen, informazioa eta deialdiak helarazteko, erakunde bakoitzaren berezko kanalak (hala nola Whatsapp edo Telegram taldeak) eta komunikazio eta barne harremanetako dinamikak (bilerak, zirkularrak, ekitaldiak eta abar) identifikatuz, hedadura ahalik eta gehien handitzeko.

ERAGILEAK GENEROAREN ARABERA


Datu-basean harremanetarako pertsonarik identifikatu gabeko 163 sarrera daude, eta beraz ez dute generorik lotuta. Gainerakoetatik, 289 gizonak dira (% 65,7) eta 151, emakumeak (% 34,3).

Argitu behar dugu identifikatutako pertsona gehienak erakundeen ordezkariak edo ezagunak direla, beraz, sarearen balioa beraien sareak hedatuz lor dezaketen tamainan dago, izan ere, horietan, generoaren osaera nabarmen alda daiteke.

Diagnostikoan esfortzu aktibo bat egin zen emakume gehiagorengana heltzeko, normalean ordezkari gisa izaten duten presentzia txikiagoa orekatzeko. Horretarako, 10 emakume-erakunde identifikatu ziren; horietako batzuk mila kide baino gehiago dituztela. Horrez gain, Getxoko Udaleko Berdintasun Saila eta parte-hartzaileak parte har lezaketen zenbait proiektu barne hartu dira, hala nola Emakumeen Ahalduntze Eskola.

Eragile migratzaileen edo atzerriko jatorriko eragileen identifikazioaren kasuan bezala, informazioa eta deialdiak emakume gehiagori helarazteko kanal egokiak identifikatu ziren.

Partaidetza-prozesurako gomendioen atalean azaltzen denez, jardueren ordutegia eta beste jarduerekin bateratu ahal den ala ez bereziki kontuan hartu beharko da.



←
Eragile nagusien sarea,
generoaren arabera
bereizita.

- Emakumeak
- Gizonak
- Harremanetarako pertsonarik gabe

1. Berdintasun handia udaleko emakumezko eta gizonetzko zinegotzien artean.

2. Gizon gehiago Getxo Kirolakeko plantillan.

3. Gehienak gizonak dira udal sailtako zuzendaritzan.

4. Emakume gehiago hezkuntza-esparruan.

5. Gizon gehiago kirol klubuen ordezkarien artean.

6. Emakumeak Ekonomia Sustapenerako sailean.

7. Emakume gehiago asoziazionismoaren eta aktibismoaren esparruan.

ERAGILEAK ADINAREN ARABERA

Adin zehatza sistematikoki ezin izan genuenez bildu, adin-talde handien arabera banatu dugu datu-basea: haurrak, nerabeak, gazteak, helduak eta adinekoak.

Ia datu-base osoa helduez osatuta dago. Hori horrela da eraginkorragotzat jo genuelako prozesuaren aurreko lehen mapaketa-txanda honetan erakundeak identifikatzea, pertsona independenteak baino.

Erakundeak zuzentzen dituzten edo haien ordezkariak diren pertsonak normalean helduak dira, eta gazteen elkarte askotan ez dago kontaktu pertsonalik.

Hala ere, dagoen sareak hedadura handia izan dezake haurrengana, nerabeengana eta gazteengana heltzeko. Esaterako, ikastetxe bateko zuzendaria (heldua dena) hainbat ikasleren (haur edo neraberen) ordezkaria izan liteke, eta datu-basean jaso ez arren, partaidetza-prozesurako kontuan hartuko lirarteke.

Proiektua adin-tarte desberdinei hurbiltzeko aukera ematen duten elkarte eta erakundeak identifikatzeari ekin zaio:

Hezkuntza-erakundeak:

- 8 Lehen Hezkuntzako ikastetxe
- 2 institutu
- 2 Lanbide Heziketako zentro
- 12 guraso-elkarte
- 3 unibertsitate
-

Haur edo gazte elkarteak: 40

Adinekoekin lotutako erakundeak

- 7 egoitza
- 4 elkarte edo pertsona nagusi

ERAGILEAK HURBILTASUNAREN ARABERA

Partaidetza-prozesuaren eragile nagusietako bat auzokoena da, Fadura irekitzen interesik handiena dutenak eta proiektuak gehien eragindakoak direnak.

Auzokoak Fadura inguruan gutxi mugitzen direla edo oso gutxi egituratuta dagoela antzeman izan dugu. Beraz, ez da erraza ondo lotuta dauden eragileak aurkitzea, horien bidez harremanetan jartzeko.

Ezagutzeko lanak ere egin ziren lekuan bertan, inguruko biztanleekin zuzenean hitz eginez, eta informazioa postontzietan banatzeko kanpainak egin behar zirela konturatu ginen, baina establezimenduetan eta atarietan kartelak jarri ere, auzoko pertsona kopuru esanguratsua izan arte.

Auzokoen artean kontaktuak zituzten 5 pertsona aurkitu genituen, 3 auzo-elkarte eta beste erakunde batzuk, hala nola komunitateen kudeatzaileak, egoiliarrekin harremanetan jartzen lagun dezaketanak.

ERAGILEAK PARTE HARTZEKO INTERESAREN ARABERA

Interes orokorra eta parte hartzeko prestasuna

Eragile nagusien sare hau osatzen duten pertsonekin egindako elkarriketetan eta gainerako elkarrekintzetan, planteatu den funtsezko gaietako bat parte hartzeko prestasuna da.

Interes bera agertu da proiektuan, erakunde mota eta pertsonaren eginkizuna edo espezializazio eremua edozein dela. Harremanetan jarritako pertsona guztiek interesa agertu zuten, eta gehienak parte hartzeko oso prest agertu ziren. Diagnostikoa egitean hainbat proposamen jaso ziren webaren bidez, nahiz eta prozesuaren berri oraindik ez eman.

Datu-basean gaur egun 513 pertsona daude “identifikatuta” gisa markatuta, 59 “interesatuta” gisa eta 82 “inplikaturata” gisa, dagoeneko jardueraren batean parte hartu dutelako edo ekarpenen bat egiten dutelako.

Parte hartzeko baldintzak

Eragile bakoitzak parte hartzeko, prozesuak zer baldintza bete beharko lituzkeen galderari zenbait erantzun eman zaizkio:

- Interesekin duen lotura: Proiektu bat garatzeko edo interesatzen zaien jarduera bat sartzeko aukera ematea.
 - Parte hartzeko denbora: denbora gutxi, lan-ordutegian izatea, ordutegi jakin batean egitea (asteburuetan), haurtzaindegi-zerbitzua izatea...
 - Erosotasun baldintzak: Batik bat kokapenari buruzkoak, Fadura baino irisgarriagoak diren lekuetan egitea eskatuz.
 - Beste baldintza batzuk: Pertsona batzuek muga zehatzagoak ezartzen dituzte parte hartzeko motibatuta sentitzeko. Itxura jakin bat eustea, azpiegituraren bat hobetzea eta abar.
- Gaiaren inguruko baldintzak: Prozesuak interesatzen zaizkion gaiak barne hartzea. Nabarmenen artean daude segurtasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna eta ingurumena.
 - Zuzeneko harremana: Jarduera profesional eta pertsonalekin lotzea edo eragitea.
 - Prozesuaren beraren ezaugarriak: Argia helburuetan, anitza eta erakargarria, erabilgarria eta eraginkorra, loteslea, inklusiboa eta errespetutsua, genero-ikuspegiarekin, gardena, ongi jakinarazita, beste prozesu batzuen barruan egotea, lidergo politikorekin eta abar.

ILDO ESTRATEGIKOAK - ERAGILE NAGUSIEN MAPAKETA

Bigarren txanda bat egitea kontaktuekin, lotu gabe dauden no-dotatik abiatuz, sarea osatzeko eta hasierako mapaketatik kanpo geratu diren taldeak sartzeko.

Prozesurako garrantzitsutzat jotzen diren erakundeekin eta pertsonekin harremanetan jartzea, eta parte hartzeko agertutako interesa berrikustea.

Proiektuaren gai garrantzitsuak lantzeko aukera ematen duten eta hemen kontuan hartutako taldeen parte-hartzea errazten duten jardueren formatuak diseinatzea, espezifikotasuna eta zeharkakotasuna orekatuz.

Komunikazio-kanpaina bat egitea proiektua aurkezteko eta interesa duten pertsonen datuak jasotzeko, pertsona independente gehiago izateko datu-basean jarduerak hastean.

Hedatzeko berriazko jarduerak egitea atezaindegietan, eremu publikoetan eta Faduratik hurbil dauden ekipamenduetan, auzokoen-gana heltzeko.

Datu-basea etengabe eguneratuta izatea prozesuaren partaidetza-fasean zehar, eragile berri guztiak barne hartuz eta haien parametroak eguneratuz.

KREDITUAK

Erakunde sustatzailea: Getxo Kirolak

Lehendakaria: Álvaro González

Zuzendari nagusia: Karitte Alegría

Getxo Kirolakeko taldea: Asier Arévalo (Komunikazioa), Sorne Esturo (Arkitektura)

Diagnostikoaren Aholkularitza Teknikoa eta Erredakzioa: Ecosistema Urbano Arquitectos SLP

Zuzendaria: Jose Luis Vallejo, Belinda Tato

Teknikari taldea: Jorge Toledo, Marco Rizzetto, Luisa Zancada, Antonella Milano, Carlos León, Marta Muñoz, Maria Vittoria Tesei, Sophia Arbara, Cristina Rodríguez Barrado, Volen Guertchev, Claudiane Bilodeau, Julia Casado


Argazkilaria: Emilio P. Doitzua

Aholkularitza antropologian: Hector Grad, Leticia Hani

Aholkularitza Komunikazioan: Arantxa Sáinz de Murieta, Asier Amezaga Albizu, Asier Gallastegui

ESKERRAK

Ainhoa Alonso, Ainhoa Cearreta, Ainhoa Urbano, Aitor Miñambres, Aitor Uriarte, Alberto Fernández, Alberto Olalde, Alberto Vidal, Alberto Zubeldia, Álvaro Gomez, Álvaro González, Álvaro Sancristóbal, Amaia Aguirre, Amaia Ibarretxe, Amaya de Felipe, Ana I. Puente, Andeka Basterretxea, Ander Arce, Arantza Carrera, Aritz Pérez Olea, Aritza Goikoetxea, Beatriz Gáquez, Beatriz Vargas, Bingen Urresti, Bosco de Unzueta, Carla Gómez, Edorta del Ser Lorente, Ekain Larrinaga, Elena Coria, Elena Jauregui, Elena Larbury, Eloie San José, Enrique Pérez, Eva Cisneros, Fernando Téllez, Francisco Javier Delgado, Francisco Jeures, Francisco Leal, Gorka Laizola, Gorka Zabala, Gotzon Zulueta, Guillermo Treku, Gurutze Alberdi, Heriberto Díez, Ibon La cruz, Ibon Rodríguez, Idoia Eizmendi, Ignacio Uriarte, Igone Blanco, Iker Uriarte, Imanol Landa, Inmaculada Goikoetxea, Iñaki Fernández, Iñaki González, Iñaki Ortego, Iñigo Bilbao, Irantzu Uriarte, Irene Tovani, Isidro Padró, Iván Lizarraga, J. ALberto Gonzalez, Jaime Ferreira, Javier Aramberrri, Javier Baranriga, Javier Cueva, Javier García, Javier Lusarreta, Jon Gaubeka, Jon J. Burrutxaga, Jon Ortega, Jorge Ortega, Jose A., Jose A. Gallego, Jose Agustín Ruiz-Poveda, Jose Ignacio Hermsilla, José Luis Landa, José Luis Martínez, Jose Pinto, Jose Rica, Joseba Aranguren, Joseba Arregi, Joseba Arregui, Josu Ateca, Juan Carlos Torrantegui, Karlos, Keltse Eiguren, Kepa Andoni, Kepa Sacristán, Kike Prada, Kitty Rebolledo, Koldo Iturbe, Leire Bilbao, Leire Gaspar, Luciana Davies, Luciano Vicente López, Manu Alkiza, María Berasategui, María Jesús Asteinz, Marian Sánchez Escudero, Miguel Ibabe, Mikel Cassi, Mikel Kerexeta, Miren Abrizketa, Miren Sánchez, Miren Uriarte, Miren-Sorne Pérez, Mirene Zabalgoeazcoa, Nicolás Hidalgo, Nikola Elorriaga, Nuria Hernández, Olga Cruz, Oscar Vixent, Patricia Alkorta, Paula Amieva, Raúl Rivas, Ricardo González, Rodolfo Arronde López, Rubén Darío Raldes, Salustiano González, Santiago Sainz, Sara Carro, Sergio San Vicente, Silvia Ruiz, Susana Andollo, Tomás Santiá, Unai Amezaga, Unai García, Urko Arregui, Uxune Iriondo, Vanessa Guzmán, Veronica Grande.





 **Getxo**
KIROLAK *bizi ezazu*

www.thinkingfadura.eus